

GARAI EDO ORREO ZARRAK BIZKAIAN



dira aziak, garauak, sagarrak, gaztañak, eta abar, saguak sartu ez daitezkan ondo itxita. Lurretik be goratuta aizea ondo artzeko. Arrizko mailladia eukiten dabe aurrean igoteko, balkoi bat, ate bat ondo itxita eta giltzagaz. Barruan alboetan toki luze bi ateakaz eta, sarritan, erdian beste toki bat. Kamarea be eukiten dabe gaiñean eta ona igoteko barruan eskuko mailladitxu bat.

Baserrian bear-bearrekoak dira uzta eta batez be garauak zaintzeko lekuak. Sarritan kamarea izaten da toki ori. Baiña Galitzia'tik eolalderantza (Portugal) eta sortalderantza (Asturias, Kantabria) gizaldi batzuk dirala garaiak edo orreoak deritzen garautegiak, egin dira, etxetik bereiztuta. etxe-antzeko eraikuntza txikiak izaten dira, lau arrizko ageren gaiñean eta teillatua estalki dabela, labatik alboratuta.

Toki lautuak izaten dira, zurez ondo itxiak eta tellatua ur bitara daukela. Or zaintzen



Bizkaia'n, oraintsura arte 17 garai edo orreo edo garautegi izan dira. Beste asko eta asko galdu dira, aizeak edo euriteak edo zerbait gaiñera jausi daukelako izan dira zapuztuak.

Ona emen oraintsura arte ikusi al izan doguzanak. Geienak or dagoz osorik edo ondakiñak baintzat.

1.– Elorrio'ko Argolaeta. Miota auzoan. Martin Landa, jabea. Etxe-aurrean 14'60 m'ra. Lau age are-arrizkoak.

2.– Garai'n Aiartzagoitia'koa. Etxetik 12'20 m.'ra. Are-arrizkoa ageak.

3.– Berriz'en Andikona auzoan. Iru gela ta kamarea.

4.– Berriz'en Besoita auzoan. Juskor dago.

5.– Erletxeta Galdakao'n.

6.– Iurreta'n, Ertzilla. Etxe-aurrean, 16'50 m.'ra. Zazpi maillako mailladia aurrean eta kamarea gaiñean.

7.– Etxebarria'n Ibarguen izenekoa, Emeterio Guenetxea'rena.

8.– Nabarniz'en Ibarguen izenekoa. Izar bat eta izkiak agean (1571).

9.– Abadiño'n, Ibarra Beazkoa. Eusebio Agirre'rena.



10.– Etxebarria'n, Iriguen Beña. Arrizko mailladia ta kamarea.

11.– Abadiño'n, Larrazabal izenekoa, Kamara aundia eta aurrean mailladia.

12.– Etxebarria'n, Labiano Goikoa, Doroteo Urzuriaga'rena.

13.– Aulestia'n, Narea Goitia izeneakoa. Floren Urizar jabea.

14.– Ispaster'en, Mendezona Goikoa.

15.– Aulestia'an Narea Goikoa.

16.– Mallbia'n, Zengoitia Bengoa, (1721), M.^a Asuncion Zengotitabengoa'rena.

17.– Elorrio'n, Zenita Aldekoa, Ascensio Garaizabal'ena, lau age are-arrizkoak, arrizko mailladia aurrean eta kamarea.

GAUR ZERTARAKO ERABILTEN DIRAN:

Baserriko bearkizun guztietarako: bost oilloak eukiteko, bost sugarria eukiteko, bi irea gorde-tekko, bedar zikua eukiteko beste bei, konejuak (untxiak) eukiteko beste bi, laztoa eukiteko bat, txarrikorta, bat, pentsua eukiteko bat, kotxea eukite beste bat.

Garai edo orreoak aspaldion billatuak izan dira eta 360 aurkituak. Gaur geienak galtzen doaz, tamakez, ez dira igaro alperrik 500 urte euretariko askorentzat: aizeak, edurtzak, eurite aundiak, gaiñera zerbait, zugatzak batez be, jausteak, izan dira kalte-eragille. Sarritan ondakiñak baiño ez dira geratzen leku askotan. Eta sarritan ez da ezer be geratzen...

Euskalerrri osoan, Araban ez da izan garai edo orreorik, Orduña-aldean banaka batzuk izan ezik eta antza dagoanez, iñoz be ez dira egon. Gizpuakoa'n: Bergara'n dago bat, Oiñati'n beste bat. Naparroa'n ba-dagoz eta iru uretarakoak dira, guztiz 21.

Jakingarria garai edo orreo'en edestia eta gaur egiten dabezan zerbitzuak, esan dogun lez baserriak bear- izan asko izaten dauz.



OLAZAR'tar Martin'ek